




# Streaming bidezko musika. Musikaren negozioa aro digitalean eta haren zaintza etorkizunerako kultur adierazpen gisa



**Uzt. 17 - Uzt. 18 2024**

**Kod. K09-24**

**Mod.:**

Aurrez aurrekoa

**Edizioa**

2024

**Jarduera mota**

Uda Ikastaroa

**Data**

Uzt. 17 - Uzt. 18 2024

**Kokalekua**

Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**

Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**

20 ordu

**Antolakuntza Batzordea**

Fundación  
BBVA



# Azalpena

Uda Ikastaro honek musika diskografikoaekoizteko modu berrien eta horien kontsumoarenazterketa bat eskaintzen du, baita ezegonkortasunhandiko mundu digital batean horiek babestekoerronkei buruzko hausnarketa bat ere. Badakiguplataforma digitaletan dauden eduki asko arriskuandaudela eta desager daitezkeela. Hainbat interesegongo dira ordezkatuta, bai ekoizleena, bai soinu-memoria digitala kontserbatzaileena. Informazioaren eta teknologiaren aroan euskarriukigarririk ez duen musika-sorkuntza zaintzearekinlotutako alderdiei buruz hitz egingo da.

## Helburuak

XXI. mendeko musikaren kontsumo moduak eta negozioaaztertzea.

Soinu-grabazio musikalaren munduko eragileen artekokomunikazio-espazio bat sortzea: soinu-sortzaile, ekoizle etadokumentalistak, eta haien hurbilketa sustatzea.

Informazioaren eta teknologiaren garaian musika-ondaredigitala zaintzeko balioaz eta beharraz jabetzea.

Soinu-ondarearen erakundeek musika-sorkuntzari eta hurazaintzeari dagokionez egiten duten lanari buruzko ikuspegiberri bat eskaintzea.

Soinu-artxibo digitalen lege-gordailuari dagokionez gauzatzenhasi diren proiektuak ezagutzea.

Ondarea babesteko xedez, eragileen arteko lankidetzarenbeharra aztertzea.

## Lankidetzak



# Programa

## 2024-07-17

09:00 - 09:15	Registro
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena <b>Pedro Leñena Mendizabal</b>   Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa - Director
09:30 - 10:15	“La producción discográfica y su preservación. Un nuevo modelo” <b>Carlos Galán Pascual</b>   Subterfuge records - Fundador y Director Ejecutivo <b>María Jesús López Lorenzo</b>   Biblioteca Nacional - Jefe de Servicio de Documentos sonoros y audiovisuales del Dpto de Música y Audiovisuales
10:15 - 11:00	“Ekoizpen diskografikoa eta haren banaketa Euskal Herrian / La Producción discográfica y su distribución en el País Vasco” <b>Andrés Camio Marchena</b>   Elkar Musika - Responsable del departamento de Música
11:00 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:15	“Merkataritza-eredu berriak eta musika-autoekoizpena Euskal Herrian - Los nuevos modelos de comercio y la autoproducción musical en el País Vasco” <b>Amaia Ispizua Gisasola</b>   MIE - Musika Industriaren Elkartea - Representante
12:15 - 13:00	“Euskal musika sustatzea eta difusioa - La promoción y difusión de la música vasca” <b>Arkaitz Villar Baños-Antigua</b>   Basque Music-Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea - Representante
16:00 - 18:00	Mahai ingurua: “La Industria discográfica en Euskadi. Los sellos vascos ante los nuevos modelos de consumo” <b>Imanol Arana Ariz</b>   Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila - Tecnico de creación y difusión cultural <b>Arkaitz Villar Baños-Antigua</b>   Basque Music-Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea - Representante <b>Iñaki Salvador Gil</b>   Vaivén producciones - Músico y director musical <b>Andrés Camio Marchena</b>   Elkar Musika - Responsable del departamento de Música <b>Amaia Ispizua Gisasola</b>   MIE - Musika Industriaren Elkartea - Representante

## 2024-07-18

09:30 - 10:15	“La preservación del patrimonio discográfico vasco como legado cultural ante los nuevos modelos de producción y distribución” <b>Jaione Landaberea Taberna</b>   Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa - Coordinadora técnica y responsable del archivo sonoro
10:15 - 11:00	“La gestión del depósito legal de documentos en línea en Catalunya. Proyectos PADICAT y COFRE” <b>Karibel Pérez Villalba</b>   Biblioteca de Catalunya - Responsable del Área de Tecnología de la información

11:00 - 11:30

Atsedena

---

11:30 - 12:30

Mahai ingurua: "La preservación de los documentos sonoros en la era del streaming"

**Pedro Leñena Mendizabal** | Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa - Director

**María Jesús López Lorenzo** | Biblioteca nacional de España - Jefe de Servicio de Documentos sonoros y audiovisuales del Dpto de Música y Audiovisuales

**Karibel Pérez Villalba** | Biblioteca de Catalunya - Responsable del Área de Tecnología de la información

**Jaione Landaberea Taberna** | Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa - Coordinadora técnica y responsable del archivo sonoro

---

## Zuzendaritza



### **Pedro Leñena Mendizabal**

Eresbil - Musikaren Euskal Artxiboa

---

Donostian jaio zen, 1965ean. Geografia eta Historiako lizentziaduna da, Musikologiako espezialitatekoa, Oviedoko Unibertsitatean. 1991n, ERESBILeko Euskal Musikaren Artxiboko (Errenteria - Gipuzkoa) teknikari dokumentalista postua eskuratu zuen, eta, horri esker, musikologo gisa garatu ditu bere bi arloak, eta modu profesionalean lantzea dokumentuen tratamendua. Bere ikerketa-lanaren artean, Musiker, Kantuz eta Dantzariak aldizkarietan, besteak beste, musikaren inguruko artikuluak argitaratzea azpimarratu behar da. Artxiboei dagokienez, azpimarratzekoa da liburutegi eta dokumentazio arloan ikastaro espezializatuak egiteko eta antolatzeko inplikazioa izan duela, eta lankidetzak aktiboak izan duela AEDOM (Musika Dokumentazioaren Espainiako Elkarteak), IAML (Musika Liburutegien Nazioarteko Elkarteak) eta ALDEE (Euskadiko Liburuzain eta Artxibozainen Elkarteak) bezalako elkarte profesionaletan. 2020. urtean zuzendari kargua hartu zuen Eresbilen. Horri esker, musika ondarea kudeatu, zaindu eta zabaltzeko lanetan sakontzeko aukera izan du.

## Irakasleak



### **Imanol Arana Ariz**

---

Imanol Arana (Vitoria-Gasteiz, 1959) - 1989tik Eusko Jaurlaritzan lan egin du, lehenik Hezkuntza Sailean eta azken 25 urteetan Kultura Sailean. Besteak beste, musikaren arloaz arduratu da: sektoreko eragileekiko harremana, dirulaguntzen kudeaketa, zabalkunde-programak, eta abar. Kultura Sailaren plan estrategikoen esparruan, Euskalerriko musika sustatzeko eta laguntzeko ekimenen diseinuan eta garapenean sektoreko eragileen parte-hartze zuzena bultzatzeko lan egin du.



### **Andrés Camio Marchena**

---

Andres Camio "Jitu" Irunen (Gipuzkoa) jaio zen 1965ean, eta bizitza profesionala musikagintzan garatu du. 1984an hasi zen Kortaturekin harremanetan, taldearen road manager gisa. 1991n, Bertso-Hop musika, komiki eta arropa dendan parte hartu zuen, eta horren inguruan hainbat kultur proiektu garatu zituen. 1991n Esan Ozenki records sortu zen. Lehen urteetan, Bertso-hop, Esan Ozenkiren ekoizpena eta promozioa eta Negu Gorriak taldearen road-manager lanak uztartu zituen. 1997an parte hartu zuen proiekturik handienetako batean murgildu zen: Fermin Muguruza eta Dut: Ireki ateak. Diskoa eta nazioarteko bira (7 hilabete/Europa eta Amerikako 16 herrialde). Fermin Muguruzak 1999, 2000 eta 2001 urteetan egin zituen nazioarteko birak ere koordinatu zituen. Esan Ozenki itxi ondoren, 2001ean, Metak zigilua sortu zen, eta haren ekoizpen-zuzendaria izan zen 2006ra arte, desegin zen arte. 2006an, Elkarren hasi zuen bere lan ibilbidea. 2020ra arte, Elkarren ekoizpen-buru eta grabazio-estudioaren arduraduna izan zen, eta, egun, Elkar argitaletxeko musika-arloko zuzendaria da.



### **Carlos Galán Pascual**

---

Carlos Galán, Subterfuge Records-en - azken 30 urteetako diskoetxe independente garrantzitsua - sortzaile eta zuzendari exekutiboa da. Bere katalogotik Dover, Fangoria, Marlango, Los Fresones Rebeldes, Najwajean, La Love You, Los Ronaldos, McEnroe, Niña Polaca edo Anni B Sweet bezalako izenak igaro dira. Musikaren industriak aro berrira egokitzeke 360º strategiaren aitzindari eta dinamizatzaile izan da. Bere azken abentura arrakastatsua "Subterfuge Radio" podcasting plataforman izan zen, formatuaren erreferente bihurtu dena. Bertan, "Simpatía por la Industria Musical" podcast-a

aurkeztu eta egiten du, non musikaren negozioko erreferenteak elkarriketatzen dituen, soinu-entziklopedia moduko bat osatuz. Gainera Complutense, Carlos III eta Nebrija unibertsitateeko gradutan klaseak ematen ditu.



## **Amaia Ispizua Gisasola**

---

Amaia Ispizuak 20 urte baino gehiago daramatza zuzeneko musikaren sektorean lanean. Syntorama edo Jazzaldia bezalako enpresetan lan egin du, eta, gaur egun, 10 urte baino gehiago daramatza Get In-en ekitaldiak sustatzen. Musika-ekitaldiak bere ibilbide osoan antolatzen ditu: ticketinga, promozioa eta marketina, Business Plana, logistika, etab. Get In lanarekin batera, Musika Bulegoko eta Musika Industriaren Elkarte (MIE) zuzendaritza-batzordeko kidea da, baita MIMeko (Mujeres en la Industria de la Música) bazkidea ere.



## **Jaione Landaberea Taberna**

---

ERESBIL - Musikaren Euskal Artxiboa, Koordinatzaile teknikoa eta Soinu-artxiboaren arduraduna

---

1962an Donostian jaio zen. Filosofian lizentziatu zen, Balioen eta Kulturaren Filosofia espezialitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV-EHU). Ingeles Ikasketen Gradua: Hizkuntza, Literatura eta Kulturaren, Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalean (UNED). Kultur Kudeaketan, Bibliotekonomian eta Dokumentazioan eta bere lanbidearekin lotutako beste diziplina batzuetan ikasketak ditu, hala nola soinu ikasketetan. 1987. urteaz geroztik, ERESBIL-Musikaren Euskal Artxiboan jardun du. Gaur egun, koordinatzaile teknikoa eta soinu-entzunezko dokumentuen arloko arduraduna da. Lan hori hainbat aldizkaritan katalogoak eta artikuluak argitaratzean islatu da. Era berean, soinu-grabazioen katalogazioari buruzko ikastaroak eman ditu, eta material horiekin lotutako jardunaldi eta hitzaldietan parte hartu du.



## **María Jesús López Lorenzo**

---

María Jesús López Lorenzo Espainiako Liburutegi Nazionaleko Musika eta Ikus-entzunezko



Departamentuko Soinu eta Ikus-entzunezko Dokumentuen Zerbitzuko burua da. Nazioko eta Nazioarteko hainbat jardunaldi, hitzaldi eta kongresutan parte hartu du, eta soinu-dokumentuen kudeaketari buruzko hainbat artikulu eta argitalpen idatzi ditu. Gainera, prestakuntza-ikastaroak eman ditu Espainiako eta atzerriko hainbat erakundetan. Azken urteotan, hainbat soinu-euskarriren digitalizazio-proiektuetan lan egin du. 2016az geroztik, Musika Dokumentazioaren Elkarteko (AEDOM) Soinu Artxiboen Batzordeko koordinatzailea da, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen (UCM) "CompluSound" Irakaskuntza Berrikuntzako Proiektua eta MKUren pianolako biribilkiak lantaldeetako kide da. 2011tik Liburutegi Nazionalean Ikus-entzunezko Ondarearen egunean urtero egiten diren jardunaldiak antolatzen ditu. Duela gutxi, "Si me queréis, ¡venirse!, Lola Flores en la Biblioteca Nacional de España" erakusketaren komisarioa izan da 2024/09/23-21/09/29.



### **Karibel Pérez Villalba**

---

Zientzia Fisikoetan lizentziaduna. Kataluniako Liburutegiko informatikako analista da 1996tik. Gaur egun, Informazioaren Teknologiko koordinatzailea da. 2016-2017 Informazio digitaleko baliabideak zaintzeko ikasgaiko irakaslea izan zen UOCen (Universitat Oberta de Catalunya)



### **Arkaitz Villar Baños-Antigua**

---

Arkaitz Villar esatari lanetan aritu da Gaztea irratian eta EITB.eus-en postu ezberdinetan (Euskal Irrati Telebista Publikoa). Musikan espezializatutako hainbat komunikabidetan kolaboratzailea izan da: Entzun, Zarata - MondoSonoro, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Berria eta 2016tik Kultura Live (Euskal Herriko kontzertu aretoen elkarte) elkartearen koordinatzailea da. 2019an etapa berri bati ekin zion Musika Bulegoko proiektuen arduradun eta Euskal Herriko musika nazioartekotzeko Basque. Music plataformaren koordinatzaile gisa. Panelista gisa parte hartu du BIME Bilbao, Fira Trovam, BIME Bogota eta antzeko nazioarteko azoketan. Gaur egun musikaren nazioartekotzean espezializatuta dago eta aktiboki parte hartzen du EMEE edo Live DMA bezalako nazioarteko sareetan.



### **Iñaki Salvador Gil**

---

Iñaki Salvador (Donostia, 1962). Pianista, konpositorea, moldatzailea. Espainiako jazz musikari nagusiekin kontzertu eta grabaketetan parte hartu du. Era berean, garrantzitsua da bere nazioarteko kolaborazioen zerrenda: Allan Skidmore, Jean Toussaint, Jesse Davis, Charles Tolliver, Alvin Queen, Ute Lemper, Noa, Lalo Schifrin eta abar. Besteak beste, Donostiako "Jazzaldia", Vitoria-Gasteiz eta Getxoko jaialdiak, "Madrilgo Nazioarteko Jazzaldia" edo Baionako (Frantzia), Bukaresteko (Errumania), Quito eta Guayaquilgo (Ekuador), Manizalesko (Kolonbia), Manchesterreko (Erresuma Batua) eta Berlingo (Alemania) jaialdietan eman ditu kontzertuak, eta New Yorken ere bere musika aurkeztu du bakarka pianoan. 15 disko baino gehiago argitaratu ditu bere taldeen buru gisa, eta 100 baino gehiagotan mota guztietako talde eta bakarlarien kolaboratzaile gisa agertu da, musika klasikotik rock edo musika herrikoira. 25 urtez Mikel Laboa euskal kantagintzaren figura handiarekin lan egin zuen.

# Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2024-07-17 ARTE

Orokorra

40,00 EUR

[Gazte tarifa](#)

25,00 EUR

# **Kokalekua**

## **Miramar Jauregia**

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa